

berriak Triforio -tik



araba
álava

Musika eta zinema Santa Mariara itzuliko dira aurtengo udaberri-udaran

Santa Maria Katedralaren elizpea kultura-programazio zabal baten agertoki izango da berriro aurtengo udaberri-udaran. Aurretiatzko ekimenen arrakasta ikusirik, Jazzeria Kultura Elkartearen lankidetzarekin, aurten hainbat kontzertu emango dira, era askotakoak. Alde batetik, eta Vital Fundazioaren laguntzari esker, ordaintzeko errezitalen blokea burutuko da ospe handiko musikariekin, besteak beste, Ana Alcaide, Contratango, Diego Vasallo, José Tomás Jiménez, Alberto Arteta eta Demodé Quartet. Jazza, popa, flamenkoa edo tangoa bezalako proposamen anitzak bertaratzen direnen gozamina izango dira zalantzarik gabe.

Halaber, eta oraingoan Laboral Kutxaren babesletzarekin, bost abesbatzen errezitalak izango ditugu, guztira 800 ahots baino gehiagoren parte-hartzearekin. Arabako Abesbatzen Elkartearekin lankidetzan, doakoak izango dira errezital hauek eta ekaineko ostiral guztietan burutuko dira, 19:45etan.

Ekimen hauez gain, poesia, aire zabaleko zinema, magia, antzinako musika eta beste hainbat kultura-proposamen izango ditugu, publiko guztiak asebetetzeko moduan.

Informazio guztia, programazioa eta gainerako xehetasunak www.kontzertuanetairekita.eus webgunean aurkituko dituzue.



Maiatza

Hilak 12

Olerkarien jaialdia maiatzean

'Iraganeko oroimen atseginak' izeneko olerki, kantu eta ballet emanaldia.

Elizpean, 19:30etan (gonbidapenak aldeztu aurretik jaso behar dira Bisitarien Zentroan).



Hilak 26

Ana Alcaide, 'Legenda' ('Leyenda')

Antzinako emakumeen legendatan inspiratutako proiektu musikal eta eszenikoa, alderdi femeninoaren indarra aztertzen duena gaur egungo ikuspegitik.

Elizpean, 20:30etan.

Sarrerak: www.kontzertuanetairekita.eus / Bisitarien Zentroa.

Prezioa: 10€, 6€ Fundatzaileen Elkartearen bazkideentzat.

Familia- turismorako helmuga



Santa Maria Katedrala Fundazioak tenplua familia osoarentzako helmuga turistikoa izan dadin lortu nahi du. Eskolako oporraldietan eta asteburuetan zehar seme-alabak dituzten familiak hurbiltzen direla ikusita, haientzat bereziki diseinatutako baliabideak jarri dira abian. Honela, esaterako, Katedralera iristen direnek haurrentzako bisita egiteko aukera dute, non haurren mailara egokitutako azalpenak eskaintzen diren ibilbide guztia arazorik gabe uler dezaten eta onura atera diezaioten. Polikromiak ere gaztetxoentzat egokitutako bertsiotan eskaintzen dira.

Hona hemen hurrengo haurrentzako bisitak: maiatzaren 12an, larunbata, 16:45etan (euskaraz) eta maiatzaren 27an, igandea, 18:00etan (gaztelaniaz).

Informazio gehiago eta erreserbak: 945 255 135 / www.catedralvitoria.eus

berriak
Triforio -tik

DATA ALDAKETA

'Europako kultura eta oinarriak' konferentzia zikloa

Maiatzaren 23an, 19:30etan.

"Arkitektura eta Europan izan duen eragina", Juan Carlos Prietoren eskutik, arkitektoa eta Santa María la Real fundazioko zuzendaria.

Micaela Portilla aretoa - Europa Biltzar Jauregia.

Sarrera doakoa izango da, aretoa bete arte.

BISITARIEN ZENTROAREN MODERNIZAZIOA

Santa Maria Katedraleko Bisitarien Zentroak bere instalazioak eraberritu ditu urtero tenplua bisitatzen duten milaka pertsoneri eskaintzen zaien zerbitzua hobetze aldera. Zehazki, eta Vital Fundazioak Arabako gizarteari ematen dizkion 2017. urteko programaren laguntzei esker, komun erabateko eraberritzea burutu da. Bisitarien Zentroa da bisitariak tenpluarekin izaten duten lehen kontaktua eta horregatik bereziki zaindu nahi izan da beti zentro honen itxura. Denbora joan ahala eta izan duen erabilera handiaren ondorioz -2017. urtean 80.000 pertsonatik gora igaro ziren handik-, instalazioak zahartuta zeuden eta berri behar izan dira. Eraberritze honi esker, komun zaharrak eraitsi eta irisgarritasun-araudiaren arabera komun berriekin ordezkatu dira. Bisitarien Zentroak emakumeentzako hiru komun, gizonentzako bi komun eta komun unibertsal bat ditu orain, azken honetan haurtxoentzako aldaleku bat izateaz gain.

Amigo Apezpikuaren Santa Mariara bisita

Pasa den apirilaren 25ean, Santa Maria Katedralak Amigo Apezpikuaren, Sevillako apezpiku emerituaren, bisita jaso zuen. Birgaitze-proiektua ezagutzen zuenez, Amigo Apezpikuak tenplua bisitatu zuen museo bihurtutako kriptei arreta berezia jarrita.

Apezpikua karguan izan zen bitartean, Santa Maria Katedrala Fundazioak hitzarmen bat sinatu zuen berarekin Sevillako El Salvador Kolegiata birgaitzeko. Horren ondoren, beste hitzarmen asko izenpetu dira alde aurretik Gasteizen abian jarritako 'Obretan eta irekita' eredu jarraitu ahal izateko.

